

## **EBAZPENA, 2026ko EKAINAREN 1ekoa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, EHUKO TITULUDUN BERRIEK ATZERRIKO ENPRESATAN PRAKTIKAK EGITEKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN BEKEN EPEZ XXII PROGRAMA OINARRIAK ONARTZEN DITUENA (2026/2027 EDIZIOA).**

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Erasmus programaren esparruan, EPEZ programaren beste deialdi bat antolatu du, EHUK titulatu berri dituen pertsoneri atzerrian praktikak egiteko laguntzak emateko.

UPV/EHUK tituludunen laneratzeko aukerak hobetzen laguntzeko gogoia du eta hortik, hain zuzen, sortu da programa hau, tituludunek lan munduari berme handiagoz aurre egin ahal izateko gaitasunak izan ditzaten. Halaber, belaunaldi libre eta beste kultura edo gizarte batzuen aurrean begirunetsuak izateko nazioarteko mugikortasunak duen garrantziaz ohartzeko balio du. Beste alde batetik, programak mugikortasunari bultzada sendoa ematea eta gizezkoen eta emakumezkoen arteko aukera desberdintasuna murriztea ere badu helburu.

### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Erasmus+ mugikortasun-deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea. Deialdi horren bidez, Erasmus+ mugikortasun-beken EPEZ XXI programa (Enpresatan praktikak European zehar/prácticas en empresas en Europa) arautzen eta iragartzen da, atzerrian titulua lortu berri duten pertsonentzat praktikak egiteko (2026/2027 edizioa).

<b>1. DEIALDIAREN HELBURUA</b>	<b>3</b>
1.1 Helburua.....	3
1.2 Beken ezaugarriak.....	3
1.3 EPEZ proiektuaren antolaketa eta kudeaketa.....	3
<b>2.- BEKEN KOPURUA, HORIEN EDUKIA ETA IRAUPENA.</b>	<b>4</b>
2.1. Beken kopurua.....	4
2.2. Edukia.....	4
2.3. Epeak.....	4
2.4. Iraupena.....	4
<b>3.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....</b>	<b>4</b>
3.1. Hautagaiak bete beharreko baldintzak.....	4
3.2. Hautatuek bete beharreko baldintzak.....	5
<b>4.- AURREIKUSITAKO FINANTZAKETA.....</b>	<b>5</b>
4.1 Bidaia gastuetarako eta mantenu gastuetarako laguntzak.....	5
4.2 Ostaturako laguntza.....	6
4.3 "Aukera gutxiagoko" kolektiboentzako laguntza.....	6
<b>5.- ESKAERA EGITEKO PROZEDURA.....</b>	<b>7</b>
5.1. Eskaerak aurkezteko epea.....	7
5.2. Bidali beharreko dokumentazioa.....	7
5.3. Dokumentazioa bidaltzea.....	7
5.4. Eskaera zuzentzea eta hobetzea.....	8
<b>6. HAUTAKETA PROZEDURA.....</b>	<b>9</b>
<b>7.- EMANDAKO BEKEN EBAZPENA.....</b>	<b>9</b>
<b>8.- HAUTATUEN PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK.....</b>	<b>10</b>
8.1 Egonaldiaren aurretik.....	10
8.2 Behin mugikortasuna hasita.....	11
8.3 Egonaldia egin ondoren.....	11
<b>9.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK.....</b>	<b>11</b>
<b>10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA.....</b>	<b>12</b>
10.1 Pertsona esleipenduna izateari uztea.....	12
10.2. Uko-egiteak.....	13
<b>11.- ORDAINKETAK.....</b>	<b>13</b>
<b>12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA.....</b>	<b>13</b>
<b>13.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK.....</b>	<b>14</b>
13.1 Araubide juridikoa.....	14
13.2 Errekurtsoak.....	14
<b>ERANSKINEN ZERRENDA.....</b>	<b>15</b>

## 1. DEIALDIAREN HELBURUA

---

### 1.1 Helburua

Erabaki honen xedea da 2026/2027 edizioko EPEZ XXI programaren oinarriak arautzea eta deialdia argitaratzea. 2025/2026 ikasturtean EHUn tituluak lortzen duten ikasleei zuzenduta, Erasmus+ programaren bidez praktikak Europar Batasunean kokatutako enpresetan praktikak egiteko, haien gaitasun profesionalak hobetzeko, enplegarritasuna errazteko eta, azken finean, prestakuntza beste ingurune kultural batean osatzeko.

Deialdia ebazteko baldintza izango da kreditu nahikoa egotea horretarako.

### 1.2 Beken ezaugarriak

Programa honetako mugikortasun beka diru laguntza itzulezinak izango dira, publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioen arabera emango dira.

Eskatzaileen artean norgehiagoka-prozedura bidez esleituko dira, eta puntuaziorik handiena lortzen duten hautagaiei bakarrik emango zaizkie, gehienez 20 epe bakoitzeko, guztira 40 plaza bete arte.

EPEZ XXI mugikortasun beka jasotzeak ez dakar kontratu edo estatutu harremanik onuradunaren eta EPEZ XXI proiektuko antolatzaileen edota praktikak egingo diren enpresaren artean.

Bekadunek egin beharreko lanen kontrola eta jarraipena EPEZ XXI programako antolatzaileei dagokie. Antolatzaileek beken garapenaren inguruan egokitzen jotzen dituzten beste egiaztapen egin ahal izango dituzte.

### 1.3 EPEZ proiektuaren antolaketa eta kudeaketa.

- **Kudeaketa:** EPEZ XXI proiektuaren antolaketan hainbat erakunde parte hartzen dute, eta erakunde horiek beren baliabideak eta gaitasunak jartzen dituzte proiektuaren garapenerako. Hala, Europako Batzordea da, SEPIEren bidez, finantzatu eta proiektua garatzeko baldintzak arautzen dituena. Era berean, EHUKo Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak parte hartzen du finantzaketan eta ekimenaren sustatzailea ere da. Bere eginkizun nagusiak dira informazio-kanpainak egitea, hautagaien hautaketa-prozesua gauzatea, baita proiektuaren garapena eta ebaluazioa ere. Azkenik, proiektuaren kudeaketaz arduratuko den erakunde bat egongo da, Erasmus+ programaren esparruan, Europako enpresetan praktikak egiteko EPEZ XXI proiektuko zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agiriarekin bat etorritik.
- **Argitaratzea:** Erabaki hau helbide honetan argitaratuko da: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez> Deialdi honi dagozkion gainerako erabakiak, ekintzak eta interesgarria den edozein informazio ere ikusgai egongo da euskarri horretan.
- **Datak:** Erabaki honetan ezarritako datak, eskaerak aurkezteko azken eguna izan ezik, gutxi gorabeherakoak dira, eta EPEZ programaren antolatzaileek zehaztuko dituzte aurreko oinarrian adierazitako Interneteko helbidean.
- **Destinoak:** Destinoak aldatu daitezke, hautatutako profilak praktikekin egokitzeke helburuarekin.

## 2.– BEKEN KOPURUA, HORIEN EDUKIA ETA IRAUPENA.

### 2.1. Beken kopurua

EPEZ XXI programaren 2026/2027 edizioan gehienez **40** beka esleitu daitezke. Beka horiek atzerriko mugikortasun gastu nagusien zati bat ordaintzeko dira: praktiken bilaketa, laguntza ekonomikoa, kudeaketa eta antolakuntza.

### 2.2. Edukia

Programako onuradun bakoitzari enpresa hartzaileak tutore bat egokituko dio, enpresako egonaldia ikuskatzeko eta praktikan zehaztutako helburuak betetzen laguntzeko.

### 2.3. Epeak

o Eskaera egiteko epeak:

2026/2027 ikasturtean zehar hainbat ebazpen argitaratuko dira mugikortasunak egiteko, betiere proiektuan dagoen aurrekontu-erabilgarritasunaren baldintzapean. Ebazpen bakoitzak eskaera egiteko epe bat eta mugikortasuna egiteko egun batzuk izango ditu. Behin-behineko ebazpen bakoitza argitaratu eta 10 egun baliodun igaro ondoren, behin betiko ebazpena argitaratuko da. Epe bakoitzean 20 plaza esleituko dira gehienez.

Mugikortasunak ondoren deskribatutako daten arabera planifikatu beharko dira:

Behin-behineko ebazpenak:	Eskaera bidaltzeko epea	Mugikortasuna epealdiaren hasiera-datarekin
Behin-behineko lehen ebazpena	2026/06/02-2026/06/09	09/2026 al 11/2026
Behin-behineko bigarren ebazpena	2026/09/07-2026/09/22	01/2027 al 02/2027
Behin-behineko hirugarren ebazpena	2026/11/02-2026/11/16	03/2027 al 04/2027

Praktikak 2026/09/01etik 2027/07/15era bitartean egin ahal izango dira.

### 2.4. Iraupena

Mugikortasun bekek 3 hilabete inguruko iraupena izango dute, onuradunak egindako ikasketekin zerikusia duten praktikak egiteko.

## 3.– BETE BEHARREKO BALDINTZAK

### 3.1. Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Hautagaiek, eskaera egiterakoan, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo mugikortasunak dirauen aldiaren, bizileku duen herrialdean aitortua izatea errefuxiatu, aberri gabe, egoiliar iraunkor, egoitza baimena indarrean duen aldi baterako egoiliar izaera edo ikasketa egonaldirako baimena izatea mugikortasunak dirauen bitartean Estatuko legediari jarraituz.
- Gradu azken urtean edo master ofizialeko batean matrikulatuta egotea, edo bukatu berria izatea.

- Erasmus+ Programan guztira 9 hilabete baino gehiago parte hartu ez izana, matrikulatua dagoen zikloaren baitan (erreferentzia gisa, kontuan edukiko dira Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordetzak dituen datuak). Salbuespenak izango dira Kreditu-kopuruagatik 24 hilabeteko mugikortasuna ahalbidetzen duten titulazioak.
- Harrera herrialdeko hizkuntzan edo, aukeran, ingelesez ahoz komunikatzeko gai izatea, eta gaitasun hori frogatzeko moduan izatea.
- Diru laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik jaso ez izana, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu arrazoiengatik diskriminazioagatik jasotakoak barne.

### 3.2. Hautatuek bete beharreko baldintzak

- Hautatutako pertsonak **EHUko unibertsitate-titulu ofizial** bat izan beharko dute, edo, bestela, **2025/2026 ikasturtean lortutako gradu edo master ofizial bat egiteko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte praktika egiten hasi aurretik.**
- Ikasketak amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteetan egin behar da mugikortasuna.

## 4.– AURREIKUSITAKO FINANTZAKETA

### 4.1 Bidaia gastuetarako eta mantenu gastuetarako laguntzak

Deialdi honetan aurreikusitako finantza-laguntzak SEPIEk adierazitako finantzaketa-arauen arabera kalkulatu dira. Deialdiaren baldintzen eta hautaketa-ebazpenetan argitaratutakoen artean kontraesanik badago, deialdikoak nagusitu dira.

Egonaldia egingo duten ikasleek Europako dirulaguntza bat jasoko dute bidaia gastuetarako eta egonaldiko mantenu gastuetarako. Laguntza bi kontzeptutan banatzen da:

1. **Bidaia gastuetarako laguntza** diru kopuru jakin bat da, eta lantokiaren eta dagokion jarduera egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera kalkulatu da, EACEAk horretarako sortutako tresna informatikoaren bidez: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator> eta bidaia ekologikotzat edo ez-ekologikotzat joko da.

Bidaiaren distantzia	Kopurua (parte hartzaileko)	Bidaia ekologikoa*
10-99 km artean	28€	56€
100-499 km artean	211€	285€
500-1.999 km artean	309€	417€
2.000-2.999 km artean	395€	535€
3.000-3.999 km artean	580€	785€
4.000-7.999 km artean	1188€	-

2. **Mantenu gastuetarako laguntza** EBk ematen duen laguntza indibiduala da, helmuga herrialdearen eta egonaldiaren iraupenaren arabera.

Países de destino	Grupo	Zenbatekoa Hileko
Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Islandia, Italia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak, Suedia.	1. Taldea	500€
Txekia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Grezia, Letonia, Malta, Portugal.	2. Taldea	450€
Bulgaria, Kroazia, Hungaria, Lituania, Ipar Mazedonia, Polonia, Errumania, Serbia, Turkia.	3. Taldea	400€

Gainera, Erasmus+ programak diruz lagundu ahal izango ditu jarduera hasi aurreko joaneko bidaia egun bat eta jarduera amaitu ondorengo itzulerako bidaia egun bat. Bidaia bidaia ekologikorako laguntzaren baldintzak betetzen baditu, Erasmus+ programak jardueren aurretik eta/edo ondoren 6 egun arte (guztira) finantzatzeko aukera ematen du.

#### 4.2 Ostaturako laguntza

Ostatuari **500 euroko laguntza** emango zaie (ordainketa bakarra) plaza baten esleipendun suertatzen diren ikasleei. Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ofizios izapidetuko du laguntza hori, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango ikasleek eskatzea.

#### 4.3 "Aukera gutxiagoko" kolektiboentzako laguntza

Gizarteratzeko eta aniztasunerako estrategia berriaren barruan, SEPIEk aukera ematen die unibertsitateei 250 € hileko laguntza gehigarria emateko iraupen luzeko Erasmus+ mugikortasuna egiten duten "aukera gutxiagoko" kolektiboentzako ikasleentzat. Deialdi honen esparruan, honako ikasle-kolektibo hauek hartzen dira halakotzat:

- a) Estatuko Administrazio Orokorren izaera orokorreko ikasketa-beka baten onuradun, izatea, unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea, edo unibertsitate mailako ikasleak eskolatzeko beka baten onuradun izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emana.
- b) Errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea izatea, edo Espainian nazioarteko babeserako eskaera aurkeztu izana.
- c) Legez aitortua eta kalifikatua izatea %33ko edo gehiagoko desgaitasuna.
- d) Familia ugaria kategorian berezian
- e) Familia ugaria kategorian orokorrean
- f) Terrorismoaren biktimak eta senideak
- g) Genero-indarkeriaren biktimak
- h) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak
- i) Hiperaktibitatearekiko arreta-gabeziagatik nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGHA/AGH)
- j) Ikasteko zailtasunak dituzten diagnostiko ziurtatuak
- k) Nahasmendu psikikoak dituzten diagnostiko ziurtatuak

Baldin eta aurrekontu nahikoa badago, talde horietako batean sartzen diren ikasleek egonaldi osoan jasoko dituzte dirulaguntzak, bat etorrita izenpetu beharko dituzten finantza kontratuetan zehaztuko diren arauekin. Dirulaguntza jaso ahal izateko, egoera horietako batean dagoen ikasleak egoera hori erregistratu beharko du —matrikula egiterakoan egin ez badu— kasuan kasuko zerbitzuan:

- A) ataletik G) atalera arteko egoeraren batean dauden graduiko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan.
- A) ataletik G) atalera arteko egoeraren batean dauden masterreko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan edo masterreko idazkaritza espezifikoan.
- H) eta K) ataletako egoeran dauden ikasle guztiak: Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuan (discap@ehu.eus).

Nazioarteko Harremanen Bulegoak egiaztatuko du, gorago aipatu diren zerbitzuetako arduradunekin batera, Erasmus+ mugikortasuna egiten duen ikasle bakoitzaren egoera, laguntza gehigarria dagokion ala ez ikusteko.

## 5.– ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

---

### 5.1. Eskaerak aurkezteko epea

2026ko ekainaren 2tik 2026ko azaroaren 16ra arte, edo data hori baino lehen, horretarako jarritako aurrekontua agortzen bada; agortzen bada, deialdiaren web-orrian argitaratuko da

### 5.2. Bidali beharreko dokumentazioa

Programan parte hartu nahi duten eta 4. oinarrian planteatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen izena eman beharko dute eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko dute online eskaera-inprimakia betez (bide telematikoan). Inprimaki hori webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>

**Online inprimakiaren bidez**, eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
- UPV/EHU ez den beste unibertsitate baten bidez Erasmus+ Programan parte hartu duten ikasleek, egonaldiaren ziurtagiriaren kopia bidali beharko dute. Horretarako gaitasuna duen zerbitzuak igorri beharko du ziurtagiria. Erasmus+ mugikortasuna UPV/EHUren bidez egin dutenek ez dute ziurtagirik gehitu beharko.
- Hizkuntza tituluen fotokopia (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, MCERL)
- Europass ereduko CVa ingelesez.
- Harrerako enpresa potentzialen aurrean bere profila eta itxaropenak aurkezteko aukera emango duen motibazio-gutuna.

### 5.3. Dokumentazioa bidaltzea

Dokumentazioa bidaltzeko, urrats hauek bete beharko dira:

1. **Online inprimakia** betetzea eta 5.2 puntuan adierazitako dokumentazioa bertan eranstea.
  - 1.1 OHARRA: izen-ematea web inprimakiaren bidez egitea lortzen ez bada, eskabide-orria pdf formatuan egongo da eskuragarri web orrian (<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>), eta deialdi honen 5.2 puntuan jasotako dokumentazio guztiarekin batera Erregistroaren bidez aurkeztu beharko da (3. puntua ikusi).

2. Eskatzaileak **eskaeraren frogagiria** jasoko du jakinarazpenak jasotzeko eskaeran agertzen den helbide elektronikoan.
3. **Eskabidearen frogagiria jaso ondoren, Erregistroaren** bidez aurkeztu beharko du:

Egun, indarrean dago EHUn bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia, 2024ko irailaren 11koa, eta bertan xedatutakoaren arabera, zenbait pertsona behartuta daude UPV/EHUrekin bitarteko elektronikoen bidez izatera harremanak. 5.f) artikuluan zehaztuta dago nola aurkeztu behar duten dokumentazioa hautapen prozesuetan parte hartu nahi dutenek, eta, hain zuzen ere, hau dio:

f) Dagozkien deialdietan ezartzen denaren arabera, Unibertsitateko lanpostuetarako hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituzte prozesu horiekien zerikusia duten tramite guztiak.

- Eskaria epe barruan aurkeztu beharko duzu EHuko egoitza elektronikoaren bidez <https://egoitza.ehu.eus>.
- Egoitza elektronikoko prozeduren katalogoan ez badago jasota egin nahi duzun prozedura, eskaria erregistro elektronikoko orokorraren bidez egin beharko duzu, **“Eskatzen du”** atalean, **EPEZ 26-27, Nazioarteko Harremanen Bulegoa**. Horretarako, egoitza elektronikoa adierazita dauden identifikazio elektronikorako edozein sistema erabili ahal izango duzu, esaterako: BakQ, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionala erabili nahi baduzu, “Ziurtagiri digitalak” aukeraren bidez, lehenago hodeiko txartel birtual profesionala instalatuta izan beharko duzu eta saioa hasi.

Bestalde, behar bezala egiaztatutako egoeretan, eskaria eta agiriak erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUko bulegoetan aurkeztu ahal izango dituzu. Euskarri ez-elektronikoan aurkeztutako agiriak digitalizatu egingo dira, administrazio espediente elektronikoa sartzeko. Aurkezten diren jatorrizko dokumentuak itzuliko egingo dizkizute, baldin eta arauen batek ez badu agintzen dokumentu horiek unibertsitateak zaindu beharrekoak direla edo ez bada nahitaezkoa objektuak edo dokumentuak digitalizatzeko aukerarik ematen ez duen berriazko euskarriren batean aurkeztu dela.

[Eskara erregistro presentzialki aurkeztuz gero](#), helbide honetara joko da:

**EPEZ XXI deialdia**  
**Oficina de Relaciones Internacionales del Campus de Gipuzkoa**  
**Centro Ignacio María Barriola**  
**Plaza Elhuyar 1**  
**20018 Donostia-San Sebastián**

Bide telematikoz bidalitako eskabideak, aurreko paragrafoetan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, EZ AURKEZTUTZAT joko dira, eta programatik kanpo geratuko dira.

Programari buruzko informazioa EHUn emango da, [od.international@ehu.eus](mailto:od.international@ehu.eus) emailaren bidez eta Interneteko helbide honetan <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez>

#### **5.4. Eskaera zuzentzea eta hobetzea**

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea

emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen erregistro elektronikoen bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, 5.3 puntuan adierazitako baldintzetan.

## 6. HAUTAKETA PROZEDURA

---

Eskaerak jaso ondoren, deialdi honetarako sortutako hautapen Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori honako hauek osatuko dute: Nazioartekotze zuzendariak, Nazioarteko Harremanen Zerbitzu buruak eta nazioarteko proiektuen teknikariak.

Hautaketa Batzordeak honako balorazio irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Espediente akademikoaren batezbesteko nota: % 30 (masterren kasuan, graduko nota kontuan hartuko da).
- Kasuan kasuko herrialdeko hizkuntzaren ezagutza maila edo/eta ingelesarena: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila edo titulu baliokideak: % 30eraino (C1: % 25, B2: % 20, B1: % 15).

Transferentziako eta Nazioartekotzeko errektoreordeak, batzordeak egindako lehenespena ikusita, berretsitako, baztertutako eta Nazioarteko Harremanen web-orrian erreserba-zerrendan geratzen diren mugikortasunak argitaratzeko aginduko du

## 7.– EMANDAKO BEKEN EBAZPENA

---

### 7.1 Ebazpenak

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, **hautatutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda** argitaratuko da EHUko Nazioarteko Harremanen atarian, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen ebazpen bidez.

Ebazpen horretan adieraziko da, hala badagokio, zer eskabidek ez duten eskatzen den dokumentazio guztia, falta diren dokumentuak zehaztuta, interesdunek 10 egun balioduneko epean akatsak konpon ditzaten, dagokien dokumentazioa aurkeztuta. Hori egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hauek izango dira baztertzeko arrazoiak:

- eskabideak deialdi honetan ezarritako epetik kanpo aurkeztea.
- Bertan ezarritako parte hartzeko baldintzak ez betetzea.

Behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, leku berean argitaratuko da, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen ebazpen bidez, **hautatutakoaren, erreserban dauden eta kanpoan geratu diren pertsonen behin betiko zerrenda**.

Transferentziako eta Nazioartekotzeko errektoreordeak bekak emateko eta ukatzeko emandako ebazpenak ondorioak izango ditu honako helbide honetan argitaratzen denetik aurrera:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/practic-as-erasmus-epez>

Errekurtsoak jartzeko epeak zenbatzeko, deialdiaren web-orrian argitaratutako data hartuko da kontuan.

## 7.2. Onarpena edo uko egitea eta erreserba-zerrenda.

Behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, esleipendunei hiru egun balioduneko epea emango zaie mugikortasuna onartzeko edo uko egiteko, bai eta erantzukizunpeko adierazpena behar bezala sinatuta aurkezteko ere, I., II. eta III. eranskinetako ereduaren arabera. Ebazpen honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, beka erreserba-zerrendan lehenengo agertzen denari esleituko zaio. Beka onartzeko dokumentua.

## 8.– HAUTATUEN PARTE HARTZEKO KONPROMISOAK

---

7. puntuan aipatutako laguntza emateko ebazpenean agertzen diren hautatutako pertsona guztiek honako betebeharrak bete beharko dituzte egonaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren:

### 8.1 Egonaldiaren aurretik

Behin hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuta, eta mugikortasuna hasi aurretik, mugikortasuna kudeatzeko nahitaezko dokumentu batzuk daude. Dokumentu horietakoren bat ez badago, mugikortasuna ez da finantzatuko eta bertan behera geratuko **da**.

1. Antolatzaileek **informazio pertsonal osagarria** eskatuko dute, pertsona bakoitzaren profilerako egokienak diren helmugak prestatzeko. Hautatutako bakoitzari mezu elektronikoko bat bidaliko zaio
2. **.Gizarte Segurantzako Zenbakia (NUSS)**. Gizarte Segurantzak identifikatzen zaituen zenbakia da. 12 zifrako Afiliazio Zenbakia (NAF) bezala ere ezagutzen da.
3. **Learning Agreement**: Harrera erakundeak sinatutako lan programa .
  - o Dokumentu horrek erakusten du harrera unibertsitateak egonaldia onartu duela. Aurreikusitako praktikaren jarduerak jasoko ditu.
  - o Dokumentua modu egokian bete eta sinatu beharko da, beharrezko eremu guztietako informazioa eta helmuga egonaldirako aurreikusitako data barne.
  - o Ezinbestekoa da "*Traineeship in digital skills*" eta "*Level of language competence*" atalak osatzea.
4. **Bidaia aseguruia kontratatu izanaren frogagiria**, estalduren eta ordainketaren deskribapena jasoko duena.
  - a. Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruia izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatik edo istripuagatik, erantzukizun zibilagatik, aberriratzegatik eta osasun-lekualdatzegatik laguntza mediko eta farmazeutikoaren estaldurak.
  - b. Bidaia aseguruia kontratatzea Erasmus+ programak ezarritako betebeharrak *sine qua non* bat da, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk **IBIL** aseguruia eskaintzen die.

5. **OLS (Online Linguistic Support):** Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin beharko dute Linguistic Support aplikazioaren (OLS) bidez. Hizkuntzaren lehen ebaluazioa egin ezean, ezin izango da mugikortasun hori egin, eta baja emango zaio ikasleari Erasmus+ programan. Hori dela eta, ez du jasoko beka.

Goian aipatutako dokumentazioa entregatzean, **Nazioarteko Harremanen Bulegoak parte-hartzaileari bidaliko dio:**

- i. **Dirulaguntza hitzarmena** sinatzeko. Sinadura elektronikoa nahitaezkoa da.
- ii. **Learning Agreement** EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak sinatua.

Ezinbestekoa da **Learning Agreement** eta **dirulaguntzen hitzarmena** alderdi guztiek **sinatuta** egotea mugikortasuna egin **AURRETIK**. edo mugikortasuna EZ da finantzatuko.

## 8.2 Behin mugikortasuna hasita

- **Egonaldiaren hasierako ziurtagiria**, mugikortasuna hasi eta hilabeteko epean sinatua (ikus eranskinak), egonaldiaren hasiera egiaztatzen duena, harrera-erakundeak edo -enpresak behar bezala sinatuta eta zigilatuta.

## 8.3 Egonaldia egin ondoren

Likidazioa egiteko, [od.international@ehu.eus](mailto:od.international@ehu.eus) helbidean honako hauek aurkeztu beharko dira, egonaldia egin eta hilabeteko epean:

- **Egonaldiaren amaierako ziurtagiria sinatuta.** Benetako egonaldia eta egonaldiaren iraupena egiaztatu beharko da, harrera-erakundeak edo -enpresak behar bezala sinatu eta zigilatutako egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren bidez. Benetako jarduera-egunak jasoko dira, kontuan hartuta ziurtagiriaren datak egonaldiaren finantzaketa-dataren berdina edo geroagokoa izan behar duela. Ziurtagiria jatorrizkoa izango da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabea, eta xede-erakundearen harrera-unitateko zuzendaritzak sinatu eta zigilatu beharko du
- **EU Galdetegiaren (EU Survey)**, kopia PDF formatuan. Parte-hartzaile bakoitzak e-mailez jasoko du, eta online egin eta pdf kopia bat entregatu beharko du, posta elektronikoz, gonbidapena jaso eta 30 egun naturaleko epean. Galdetegia betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak.

Mugikortasunaren iraupen-aldiak behar bezala egiaztatzen ez badira, jasotako zenbateko osoa itzultzeko eskatuko da.

## 9.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK

---

- a) Irteera baino lehen eskatutako dokumentazioa aurkezteko epeak betetzea. Bestela, bekatik kanpo geratuko da.
- b) Emandako beka onartzea, ebazpen honen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera, erakundeak horretarako adierazitako epean..
- c) Beka jasotzeko bateraezintasunik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena sinatzea, erabaki honen II. Eranskinean ezarritakoaren arabera.
- d) Bekaren esleipendunak Gizarte Segurantzian Europar Osasun Txartela (EOT) eskuratu beharko du, eta harrera erakundearen edo enpresaren sartu aurretik hornitu beharko da.

- e) Esleipendunek hizkuntza maila neurtzeko lehen proba Erasmus+ mugikortasuna hasi aurretik egin beharko dute Linguistic Support aplikazioaren (OLS) bidez . Hizkuntzaren lehen ebaluazioa egin ezean, ezin izango da mugikortasun hori egin, eta baja emango zaio ikasleari Erasmus+ programan. Horrek esan nahi du ez duela bekarik jasoko.
- f) Ezarritako epean agintzen zaizkion prestakuntza zereginak arduraz burutzea, mugikortasun bekaren izaeraren arabera.
- g) EPEZ XXI programaren antolakuntzak helmugan proposatzen dizkion ekimen guztietan parte hartzea (ongietorri-bilera, ebaluazio-bilera formal eta informalak, etab.)
- h) EPEZ XXI programako antolakundeari jakinaraztea beka emateko kontuan hartu den edo bekaren garapen arruntean eragina izan duen edozein inguruabar, objektiboa zein subjektiboa, aldatzen bada
- i) EPEZ XXI programaren antolakuntzak helarazitako jarraibideak betetzea, bereziki, bekaren gozamenean sor daitekeen jabetza intelektual eta industrialari eta konfidentzialtasun-betebeharrari dagokienez.
- j) Xede-enpresan errespetatu beharreko konfidentzialtasun-betebeharrari dagokionez eska dakizkiokeen dokumentu guztiak sinatzea, eta, nolana ere, isilpean gordetzea praktiketan egindako jarduerari buruz jakin ditzakeen informazio guztiak.
- k) Bekak iraun bitartean egiten diren txostenak EPEZ XXI programaren antolatzaileek argitara ditzaten onartzea.
- l) Haren tutore gisa aritu eta haren prestakuntzaz arduratuko diren pertsonak jakinarazten dizkieten jarraibideak betetzea.
- m) EPEZ XXI programaren antolatzaileek eskatzen dioten informazio guztia ematea, arreta berezia jarritz beka baliatu ondoren ebaluatzeko ekimenei. Bereziki, egonaldiari buruzko txosten idatzi bat egiteko eta Erasmus+ agentziak emandako ebaluazio-formularioa betetzeko konpromisoa hartzen du (Mobility Tool/Participant Report inkesta).
- n) Bidegabe jasotako zenbatekoak eta jasotako zenbatekoak itzultzea, baldin eta horien gastua behar bezala justifikatzen ez bada.
- o) EPEZ XXI programako antolakundeari jakinaraztea beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.
- p) EPEZ XXI proiektuan parte hartzen duten tutoreekiko, ikaskideekiko eta gainerako parte-hartzaileekiko errespetuzko eta erantzukizuneko jarrera izatea.

## 10. – PERTSONA ESLEIPENDUNA IZATEARI UZTEA

---

### 10.1 Pertsona esleipenduna izateari uztea

Bekaren esleipenduna izateari utziko zaio, beka-aldia amaitzen denean ez ezik, honako egoera hauetakoren bat sortzen denean:

- a) Uko egitea, espresuki edo isilbidez. Ikasleak deialdietako epeak eta plazen esleipena egoki betetzen dituela bultzatzeko, penalizazioak ezarri ahal izango dira beka bat lorturik beka horri behar bezala justifikatu gabe uko egin dioten ikasleentzat, baldin eta uko egitea beranduegi egiten bada eta era horretan plaza erabiltzeko beste hautagai baten aukerak zapuzten badira. Penalizazio horrek programa honen hurrengo deialdian parte hartzeko ezintasuna ekarriko du.
- b) Obligazioak ez betetzeagatik edo beka emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik baliogabetzea.
- c) Gerora sortutako bateraezintasuna edo ezinbesteko arrazoia.

Beka aldia amaitzen denean izan ezik, bekaduna izateari uzteak bekagatik kobratutako eskubide ekonomikoak itzultzea ekarriko du berekin. Itzuli beharreko zenbatekoa garatu gabe geratu den beka denboraldia kontuan hartuta kalkulatu da

Diru laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko zaizkio EHUri.

## 10.2. Uko-egiteak

Beka onartu ondoren, onuradunak uko egitea aurkeztu nahi badu, idatziz jakinarazi beharko dio Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzari, arrazoiak adieraziz eta dagokion frogagiria aurkeztuz. Jakinarazpenik ez badago, eskatzailea Erasmus+ mugikortasun-deialdiatarako hautaketa-prozesuetatik kanpo gera daiteke.

Uko egitea [od.international@ehu.eus](mailto:od.international@ehu.eus) helbidera bidali beharko da.

## 11.– ORDAINKETAK

---

Oro har, laguntzak banku transferentzia bidez kontu korrontea batera ordainduko dira. Kontu korrontea horren titularrak edo baterako jabea, beka jasotzen duen onuradunarena izan behar da. Ikasleak kontu korrontea eman beharko du eta irekita egon beharko da beka jaso beharreko aldi osoan. **Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da Espainiako banketxeko kontu bat izatea. Ez da diru-sarrerarik egingo beste herrialde batzuetan kokatutako erakundeetan irekitako kontuetan.**

Bekaren ordainketa, SEPIE erakundetik datorren laguntzaren ordainketa (zenbatekoa helmugako herrialdearen arabera izango da) honela banatuko da:

- 1) % 70 mugikortasunaren hasieran. Ebazpen honen 8.1 eta 8.2 puntuetan adierazitako dokumentazioa bidaltzeak baldintzatzen du ordainketa hori.
- 2) % 30 mugikortasuna amaitzean. Ordainketa hori egiteko, ebazpen honen 8.3 puntuan adierazitako dokumentazioa bidali beharko da, eta zenbatekoa egonaldiaren iraupenari egokituko zaio.

Egonaldiaren hasiera- eta amaiera-ziurtagiriek jasotako hilabeteak baino epe laburragoa egiaztatzen badute, ziurtatu gabeko hilabeteak itzultzeko eskatuko da.

## 12.- MUGIKORTASUNAREN AINTZATESPENA

---

- a) **Ziurtagiri profesionala:** Harrera enpresek ziurtagiria egingo dute eta bertan zehaztuko dira ikasleak egindako lana, praktiken iraupena eta aprobetxamendu maila.
- b) **Euskal Herriko Unibertsitatearen ziurtagiria.** Ziurtagiri horretan programan parte hartu izana zehaztu eta egiaztatuko da.
- c) **Learning Agreement for Traineeships:** prestakuntza ibilbide europarra zehaztuko da, ibilbide horretan jasotako lan esperientzia edo trebakuntzari buruzko datu guztiak adierazita. Zehazki, EPEZ proiektuaren esparruan emandako denboraldia egiaztatzen duen dokumentu espezifiko emango da.

## **13.– ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK**

---

### **13.1 Araubide juridikoa**

Honako hauek arautuko dute EPEZ mugikortasun programa: 1) Erabakiaren oinarriek; (2) 1997ko azaroaren Ilko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, bereziki VI. Idazpurua, "Euskal Autonomía Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Diru-laguntzen Erregimena" izenekoak; (3) Diru-laguntzen Lege Orokorrak (indarrean dagoena); (4) Erasmus+ Mugikortasun programa (Erasmus+ programme guide), eta (5) aplika daitezkeen gainerako araudiak.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetera dagokien tauletan esleipen erabakirik argitaratu ez bada, interesdunek eskaera atzera bota dela uler dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 24 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

### **13.2 Errekurtsoak**

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal da Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, erabakia Unibertsitateko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia Unibertsitateko webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua)

Leioa, 2026ko ekainaren 1an.

**Miren Gotzone Barandika Argoitia**

Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

## ERANSKINEN ZERRENDA

---

Eranskin hauek argitaratuko dira webgunean:

- **I. ERANSKINA:** EPEZ XXI PROGRAMAKO MUGIKORTASUN BEKAREN ONARPENA.
- **II. ERANSKINA:** ZINPEKO AITORPENA
- **III. ERANSKINA:** UKO EGITEKO
- HASIERAKO ZIURTAGIRIA (CERTIFICATE OF ARRIVAL)
- BUKAERAKO ZIURTAGIRIA (CERTIFICATE OF ATTENDANCE)